

EAJk PPri utziko dio alkatetza Bastidan, negoziatzen ari direla ukatu arren

EAJko eta PSE-EEko taldeak prestatzen hasi dira Gipuzkoako Foru Aldundian gobernatzeko

Xabier Martin

Udal eta foru gobernuen atek irekitzeko, PPren giltza behar du EAJk, baina harekin negoziatzen ari dela ukatu du gaur arte. Bastidako auziak, ordea, argia eman dio egoerari. Eduardo Barinaga alkategai jeltzaleak dimisioa eman du, Araba Buru Batzarrak agindu diolako hautagaitzarik ez aurkezteko; Barinaga ez dago ados estrategia horrekin: esan diote aginte makila PPri uzteko, hura baita lehen indarra Bastidan. EH Bilduren botoekin, EAJ-rena litzateke udal gobernu hori, aurreko agintaldian bezala; baina PPK argi eskatu du Bastidako aginte makila, baita Guardiako ere. Gipuzkoako Foru Aldundia jokoan du EAJk ezeren aurretik, PPren botoak behar dituelako han EH Bilduren garaipen argia baliogabetzeko. PPekin negoziatu ala ez, egoera horren lehen ondorio argia ikusi da Bastidan.

«Dei bat jaso dut, eta eskaera hori egin didate. Agintaldia prestatzen ari ginen, baina alderdi baten barruan gaude, eta erabaki batzuk gure gainetik daude. Erabaki horiek bete behar dira, eta nik bazterrerara egin dut», azaldu du Barinagak. Arabako EAJk esan du «hautagai independentearen apustua» ez duela emaitza onik lortu, eta «zuhurrena» dela

«oposizio erailkitzaile bat» egitea Bastidan.

Arabako PPko presidente Inaki Oiarzabalek, berriz, ziurtatu du EAJ eta PP hizketan ari direla. Arabako Errioxan udal euskaltzale eta abertzaleak eratze aldera, EH Bildu prest dago alkategai jeltzaleak babesteko. Baina Bastidan behintzat, EH Bildu ez du aukerarik izango horretarako.

EAJk eta PSE-EEK PPren babesa behar dute, halaber, Gasteizko Udalean EH Bilduren alkategai Rocio Vitero baztertzeko –hauteskundeak hark irabazi dituzte eta, hala, PSEko Maider Etxebarria alkate egiteko. PPren eskarak aintzat hartzeko arrazoiak ez dira hor amaitzen: Arabako Errioxako udalerririk populatuenean ere, Oionen, PPri esker EAJk aginte makila kendu diezaioke EH Bilduri, hauteskundeetan koalizioa nagusitu den arren.

Gipuzkoako Aldundian

Guardia da PPren beste eskaera. Alkategai jeltzaleak, Raul Garcia, hautagaitza aurkeztuko duela esan du, EH Bilduren babesari esker aginte makila hartzeko asmoa baitu. Baina Araba Buru Batzarrak garbi utzi du bere esku duela azken erabakia. Baliteke Guardian alkatea EAJkoa izatea. PP lehen indarra izan bada ere, alde oso txikia atera du eta.



Eduardo Barinaga EAJren Bastidako alkategai ohia, ETBko zuzendari zeneko agerraldi batean, Eusko Legebiltzarrean. MARISOL RAMIREZ / FOKU

Bien bitartean, EAJ eta PSE Gipuzkoan gobernatzeko prestatzen ari dira. EAJko batzarkideek Batzar Nagusien Mahaia eratze proposamena helarazi dute: mahaiari bost alderdiek izango lukete ordezkaritza, «handienetik txikienera, hurrenez hurren aukeratu», Maria Eugenia Arrizabalaga EAJko bozeramaileak jakinarazi duenez. Batzar Nagusieta aldeko lehendakaria EH Bildukoa izango litzateke, proposamen horren arabera; lehen lehendakari

riordea, EAJkoa; bigarren lehendakariordea, PSEkoa; lehen idazkaria, PPKoa, eta bigarren idazkaria, Elkarrekin Podemoskoa. «Akordio hori betetzeko, nahikoa da talde bakoitzak bere buruari botoa ematea», zehaztu du Arrizabalagak.

Horrez gain, Foru Aldundirako «gobernu egitasmoa garatuko duen akordio politiko» negoziatzen ari dira EAJko eta PSEko ordezkariak, «eta hori izango da Eider Mendozaren izendapen hi-

Oskar Matute EH Bilduren Kongresurako hautagai agerraldia egin du Bilbon, posta bidezko botoa erabiltzea galdegiteko. «Badakigu uztailaren 23ko hauteskunde egunerako bestelako planak eginak dituztela euskal herritar askok. Horretarako dago posta bidezko botoa. Garrantzitsua da botoa ematea gauzak aldatzeko». Esan du ezker independentistaren hautua indartuz gero pauso gehiago emaniko dituztela Madrilen eskubide sozialetan. Matute: «Eskuina gelditzeko eta inboluzio saikerei aurre egiteko boto eraginkor bakarra EH Bildurena da. Guk ez dugu zalantzarik PP eta Feijorekin».

tzaldiaren muina», erantsi du Arrizabalagak. EH Bilduko ahal-dungai nagusi Maddalen Iriartek irabazi ditu foru hauteskundeak Gipuzkoan, alde handiz, baina EAJk ziurtatu jo du PPren babesa Mendozara ahal-dungai nagusi izendatzeko. Koalizio abertzaleak 22 batzarkide lortu ditu; EAJk, hamazazpi; PSE-EEK, zazpi; PPK, hiru; eta EPk, bi. PPK izango du giltza.


Azken orduetan azaleratzen ari den argazkian islatzen da EAJko Euskadi Buru Batzarrak estrategia orokor bat diseinatu duela Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako. Tokiko akordioak badira, ordea: Laudion (Araba), akordioa egin dute EH Bilduk eta Omnia plataformak; eta Pasaian (Gipuzkoa), koalizio abertzaleak Elkarrekin Podemoskin sinatu du ituna. Bi kasuetan, alkatetza EH Bildurentzat izango da.

berria denda

Utzi dena prest hurrengo ikasturterako!

Eskuratu BERRIaren
2023-2024 ikasturteko
ikasle eta irakasle agenda!

Ilustratzailea: Alaia Gaztelumendi



Ikasle agenda

11€ b/9

Egin orain erreserba,
eta ikasturte berrirako
bidaliko dizugu.



Irakasle agenda

14€ b/12

943-30 43 45
BERRIAgus/berria/agenda/denda

BERRIAgus, egin eskaria eta etxera bidaliko dizugu

berria
zul/badakitzaile